

XIII. Kongresua, Bilbon 2013ko urtarrilaren 23 eta 24 Kudeaketa txostenaren aurkezpena

Afiliazio, hauteskunde eta informazio ekonomikoaren Eranskina

Sarrera

Kudeaketa Txostena aurkezteko bigarren parte honetan zera ikusiko dugu:

- Alde batetik, Kudeaketa Txostena aurkezterakoan, atal batzuetako datuak aipatu dira, eta hauetan sakonduko dugu: afiliazioa, hauteskundeak eta zerbitzu juridikoa.

- Beste batetik, informazio ekonomikoa azalduko dugu.

Datu hauek, jaso duzuen Kudeaketa Txostenaren eranskinean bilduta daude, eta aurkezpenen honetan azpimarragarriena azalduko dut.

1. Afiliazioa

Emitza

Hasteko, gogoratu behar da emandako informazioa, 2008ko iraila eta 2012ko iraila arteko datuak direla.

Afiliazioaz asko hitz-egin dugu azken 4 urtetan; beti bezala. Baina era berean, desberdin. Zergatik? Ba gauzak diren bezala, asko sufritu dugulako, krisiak eragin duen enplegu suntsipenarekin.

Afiliazioan oinarritutako organizazioa gera; gure eredu sindikalak eta ekintza sindikalak afiliazioa eskatzen du, eta gure proiektuaren autonomiak afiliazioa eskatzen du.

Horrek esan nahi du gure buruari jartzen diogun helburua altua dela, eta lortzeko beraz, lan asko egin behar da: bilerak, planak -epe ertainekoak edo txokekoak-, jardunaldiak, kanpainak...

Eta horren emitza balore handikoa izan da, alta asko egin ditugu eta horrekin lortu dugu emitza ona. Negatiboa, "gorria", baina era berean ona.

Eta hau esateko, soldata-pekoe bilakaerari begiratzen diogu:

Urte hauetako ezaugarri nagusia enpleguaren suntsipena izan da. Soldatapeko pertsonen kopurua, %12,13 jaitsi da Euskal Herrian. Sektoreka, 2008ko irailetik 2012ko irailera, hau izan da bilakaera:

- 1.300 pertsona gutxiago lehenengo sektorean
- 56.700 gutxiago industrian
- 39.400 gutxiago eraikuntzan
- eta 30.100 zerbitzuetan
- Guztira, 127.500 pertsona gutxiago.

Guztiok dakigu afiliazioa neurri handi batean lotuta dagoela lanpostu bat izatearekin, eta beraz bilakaera honek eragina izan du bajen bilakaeran.

Horregatik diogu emitza ona izan dugula negatiboa izan arren: urte hauetako afiliazioaren

emaitza, 4.006 pertsona gutxiagokoa da. Horrek esan nahi du afiliazioa %3,66 jaitsi dela, soldata-pekoei jaitsiera %12,13koa izanda.

Eragina izan du ere afiliazioaren adinaren arabeko konposizioan. Lan merkatuaren ateak erabat itxita daude lehenengo lan baten bila dabilzanentzat; hau da, gazteentzat. Eta gainera, kaleratuen artean handia da gazteen pisua. Honen ondorioa ikusi da afiliazioan, eta batzuetan afiliazioaren adina, handitu da 4 urte hauetan: 1,6 urte gehiago ditugu eta 46,2 urtetan kokatzen da batzuetan adina.

Gardentasuna

Kongresu arteko epe honetan, gure datuen egiaztatzea egin dugu. Hirugarren aldia da (93an eta 2004an egin genuen). ELAk garrantzi handia ematen dio, bai informazioa eta datuak emateari, eta baita sinesgarritasuna irabazteko balio duten horrelako prozedurak egiteari.

Emaitza positiboa izan ez arren ez dugu zalantzarik izan; datuak eman behar dira sinesgarritasuna mantentzeko. Hau ez da irabazitako gauza bat; mantendu behar da, beste batzuk lan handia hartzen baitute zilegitasuna kendu nahian: botere ekonomikoak, politikoak eta mediatikoak egiten duten lana sindikatuak zilegitasuna kentzeko badu bere emaitza iritzi publikoan. Eta jakinda gutxitan ikusten direla horrelako ariketak, esparru sindikalean, zein politiko edo sozialean, oso beharrezkoa iruditu zaigu egiaztatze prozedura burutzea, eta hala egin genuen abenduaren 11an.

Aipatzekoa da gardentasunak posible egiten duen azterketa maila, eztabaida erreala eta ondorio zuzenak ateratzea. Hau guztia, aurrera egiteko; langileok behar dugun organizazioa egiteko. Zentzu honetan, beste sindikatu batzuekin, egin ahal izan dugun sakonketa berebiziko garrantzia du guretzat, sindikalgintzaren berrikuntzari ematen diogun garrantziaren baitan.

Sindikazio tasa

Bilakaera hauen ondorioz -enplegua eta afiliazioarena-, ELAren sindikazio tasa hobetu egin da. Sindikazio tasak adierazten du lanean diharduten soldatapeko langileen zer portzentaje dagoen ELAra afiliatuta. Beraz, datu hau kalkulatzeko, afiliazio aktiboa soldata-pekoei kopuruarekin alderatzen da.

Gure sindikazio tasa 10,34koa da; inoiz izan dugun handiena, eta 2008ko irailarekin konparatuz, ia puntu bat gehiago.

Gehiago izatea, nahi eta behar dugu erronkei aurre egiteko, baina balorea eman diezaiogun datu honi, sindikazio tasaren inguruan, gogoratu behar dira 2 gauza:

1. Sindikatuak afiliazio datuak egiaztatzen ez duten eremuetan ez dakigu zein tasa eta bere bilakaera. Azterketa edo ikerketa batzuk medio, estimazioak daude baina informazioa oso pobrea da.
2. Gure inguruko tasak zeintzuk diren
 - HEH: 2008an egin zen inkesta baten arabera, %29koa da. Datu fidagarriak iruditzen zaizkigu, ELAri asignatzen zaion datua erreala baita.
 - Estatuan: Orain dela 20 urteko ikerketek %10ean kokatzen zuten
 - Frantzian: Orain dela urte batzuetako datua %8koa

- Alemanian:2008ko datuek, %19a zioten.

Afiliazioa eskualdeka

Puntu honetan azpimarratzekoa da eskualde batzuetan positiboan gaudela. Gertatutakoa aztertuta, beste eremuetara zabaldu daitezken esperientzi onak atera behar ditugu, eta honekin, lehen Txikik aipatu duen bezala, lan planak zehaztu eta jorratu.

Horrela, aipatzekoa da Gasteiz eskualdeak %3ko hazkundera izan duela; Eskualdeak %2,46koa eta Gernika-Durango % 1,3koa.

Afiliazioa federazioa

Enpleguaren bilakaera desberdinak sektoretan, emaitza desberdinak utzi ditu federazioetan.

Horrela, Zerbitzuak federazioan afiliatu gehiago ditugu, +1.233. Horrek %4,9ko hazkundera suposatzen du. Gizabanakoen federazioan mantentzen dugu, +116; eta Metala eta Hainbat federazioetan, orain dela 4 urte baino gutxiago, -2.408 eta -2.947.

Hainbatek galtzen ditu afiliatu gehien eta jaitsiera handiena du ere, baina kontuan hartu behar dugu, federazio honetan dagoela eraikuntza sektorea, 40.000 soldatapeko galdu dituen (47a baino gehiago!).

Bestalde, aipatzekoa da sektore batzuen hazkundera. Eskualdeen kasuan esaten genuen bezala, sektore batzuk emaitza positiboak izateak, gure lan sindikalean sakontzera eraman behar gaitu, ondorioak atera ditzagun eta esperientzi onak zabal ditzagun. Horrela, adibide batzuk ematearren, ostalaritzan %20ko hazkundera izan dugu; merkataritzan %3,26koa; garbikuntzan %3,79koa; “sozio sanitarioan” %17,15koa. Krisiaren eraginak orokorrak izan arren, gure afiliazioa handitzea lortu dugu.

Honen ondorioz, 4 federazioen pisua aldatu da, eta Gizabanakoen da afiliatu gehien dituen.

Afiliazioa sexuaren arabera

Kongresu-arteak afiliazioa generoaren ikuspegitik aztertzerakoan, azpimarratzekoa da emakumezkoak gehiago direla kopuru absolututan, 1.674 gehiago gara eta ondorioz, gizon eta emakumezkoen konposizioan 6 puntuko aldea dago: 2008an %37 - %63 ginen eta gaur, emakumeak afiliazioaren %40 dira, eta gizonezkoak %60. 26 puntuko diferentziatik, 20 puntukora pasa gera.

Azpimarratzekoa da, gizonezkoen enplegu gehiago suntsitu bada ere (%16,6), emakumeen enplegua jaitsi dela baita ere (%6,9) eta egoera honetan, afiliazioa igotzea lortu dugu.

Enpresa tamainaren arabera.

Datuak ikusteko beste ikuspegi bat, enpresaren tamainakoa da.

Lanean dauden afiliatuak enpresaren arabera sailkatzen baditugu, zera ikusten degu:

- %44a, 50 langile baino gutxiagoko enpresetan aurkitzen dugu,
- %56a, 50 langiletik gorako enpresetan.

Honek esan nahi du, sindikazio tasa enpresa handitan 12,5koa dela, eta enpresa ertain eta txikietan, %8,5koa.

Datu guzti hauek ikusita, zera esan dezakegu:

- **Krisiak eta kaleratzeek eragina izan arren afiliazioan, lanean daudenen artean lan sindikala; hau da, langileak antolatu eta afiliatzeko aukera handiak daude. Gakoa: langileengan gertu dauden militanteak izatea lan zentro bakoitzean.**
- **Bereziki sektore prekarioenetan, feminizatueta, ELAk jarraitzen du azken hamarkadan izan duen sindikazio emaitza sendotzen.**
- **ELAko afiliazioaren ia erdia enpresa txikietan egoteak, hau ere, esparru zentrala dela ekintza sindikalerako erakusten du.**

2. Hauteskunde sindikalak

Lau urte hauetako emaitzak positibotzat jotzen ditugu:

Hauteskunde Sindikalen epe trinkoa hazkunde txiki batekin bukatu genuen eta ordutik ona jaitsiera txiki bat izan dugu. Dezimak alde batera utzita, zer esan dezakegu: Hego Euskal Herrian, krisi garaian ere, kontra-botereko eredu sindikala da ordezkartzaren gehiengo zabala duena; hau da langileen gehiengoak aukeratzen duena bere burua defendatzeko. Ondorio gisa esan genezake, eredu sindikal honen baliagarritasuna berresten dela.

Urte batzuk dira dagoeneko, batzuk espero zutena ez dela gertatu; patronala eta gobernu desberdinen kalkulua zera zen: kontra-botereko sindikalgintza herri honetako gehiengoa izateari utzi behar ziola eta gure ordezkartzaren gainbehera hasiko zela. Ba hemen ditugu datuak: Nafarroan %21,3 eta EAEn %39,6ko ordezkartza dugu. Hau da; Hego Euskal Herrian ELAk %35,04ko ordezkartza du.

Beste sindikatuak izandako bilakaeran, dezimak alde batera uzten baditugu 2 datu dira azpimarratzekoak: UGTk puntu bat galtzen du eta %16,6an gelditzen da bere ordezkartza, eta "besteak" 1,3 puntu irabazten ditu, %10,95eko pisua hartuz.

Enpresa itxiera eta langile kaleratzeak direla medio, ordezkari kopurua jaitsi da 4 urte hauetan; 1.460 gutxiago dira denera. Honen ondorioz, "Besteak" kenduta, sindikatu guztiek dituzte ordezkari gutxiago banaketan.

Bukatzeko esan,

- ELA lehenengo sindikatua dela Hego Euskal Herrian, ordezkartzaren %35a duelarik, eta bigarren sindikatua -CCOO- 18 puntura dagoelarik.
- Nafarroan, hirugarren sindikatua da ELA, CCOOtik 4 puntura eta UGTtik 8 puntura.
- Eta, 4 federazioetan ere, ELA da lehenengo sindikatua.

3. Zerbitzu juridikoa

Zerbitzu juridikoari buruz hainbat gauza esan ditu Txikik, eta espedienteen gorakada azpimarratu du.

Zentzu honetan arreta jarri behar da espediente kolektiboen gorakadan. Datu hauek, 2008 eta 2011 artekoak dira –urte osokoak eta ez orain ikusi dugun arte irailetik iraila artekoak–. Aipatu behar da, 2012an, hemen azaltzen ez dela, gorako bilakaera berdina izan dugula, krisiak eraginda.

2011ko datuei erreparatuta zera ikusten dugu:

- 8.000 gora espediente ireki ditugu
- 10.300 gora afiliatuei
- la 5.800 epaiketa egin ditugu

Zerbitzu juridikoko lanaren erakusgarri ona dira datu hauek, eta baita gure afiliatuentzat duen garrantziarena.

4. Informazio ekonomikoa

Datu ekonomikoei dagokionez, gure diru-sarrerak eta hauen banaketan zentratzen gera. Azalduko dudan informazioa itxita dauden 2008, 09, 10 eta 2011ko datuak dira. Lau urte beraz, eta konparatzen ditugu aurreko lau urtetako datuekin.

Aipatu behar da baita, ELAk aurrekontu bakarra duela, Nazio Kontseiluak onartzen duena urtero.

Kontuak ixten direnean, Kontrol komisiok aztertzen ditu (kontrol komisiok Nazio Kontseiluko 4 kide dira- nazio batzordekoak ez direnak). Eta, Nazio Kontseiluari dagokio ondoren itxitako kontuak onartzea.

DIRU SARRERAK

Hemen, kongresu honi, ez diot azaldu behar datu hauen atzean dagoenaren garrantzia. Ez dut azaldu behar datu hauek era zuzen eta argian erakusteari ematen diogun garrantzia...

Askotan hitz-egiten dugu ELAren proiektuaren oinarriari buruz: egin nahi dugun sindikalgintzak eskatzen duen afiliazioa; era aske batean gure lana egiteko behar dugun auto-finantziazio maila...

ZEIN IZAN DA GURE BILAKAERA 4 URTE HAUETAN?

Kuotak.

Esan behar dugun lehenengo gauza zera da: Kuotek diru sarreretan suposatzen dutena, duten pisua, handitu egin da: % 85,7tik, %88,9ra pasa gera. Hau da, 3,2 puntuko igoera. Etengabeko gorakada izan du partida honek -horretaz hitz-egin genuen ere aurreko kongresuan-, eta 4 urte hauetan, urtetik urtera ere handitu da.

Lau urteak batuta, kuotetan jaso duguna – 80 miloi 800 mila euro – aurreko lau urtetan jaso genuena baino ia % 25 gehiago da. Afiliazio emaitza negatiboa den arren 2008ko afiliazioarekin konparatuz, horrek ez du kentzen jasotako kuotak 2008-2011 epean, 2004-2007 epekoak baino gehiago direla (kontuan hartu 2004an 105.000 afiliatura ez ginela iristen).

Eta bestalde, kuotaren prezioak ere gora egin du gero ikusiko dugun bezala.

Diru-sarrera propioak

Diru-sarrera propioak, kuotak gehi bestelako diru-sarrerak osatzen dute. Partida honek pisu txikia du eta zerbitzu juridikoko sarrerak dira nagusi.

Baina txikia izan arren, kuotei gehituta, diru sarrera guztien %90a baino gehiagora iristen gera; inoiz baino gehiago.

Autonomia

Hau da, inoiz baino autonomi finantzero handiagoa daukagu, eta kuotetan oinarritzen dena. Ez dezagun ahaztu, gure proiektu sindikala bere osotasunean eta era aske batean garatu dadin, nahi eta nahitaezkoa dela:

- Diru sarrera propioak, ia erabatekoak izatea.
- Huetan, kuotak, ia erabatekoak izatea. Gure proiektuaren oinarria afiliatuak dira; ez bestelako jarduerak.
- Diru sarrera horiekin gure jarduera guztia finantzatzea: lan sindikala eta soziala eta borrokarako behar dugun erresistentzia kutxa. Hori guztia zorpetze eta mendekotasunik sortu gabe.

Bestelako partidak

Koadroan azaltzen den hurrengo partida, 4 urte huetan jasotako diru-laguntzena da: daukagun ordezkarietatik dagozkigunak, Nafarroan, EAEn eta Estatuan. Aurreko epearekin aldentuz, KPlren azpiko bilakaera izan duela ikusten dugu, eta beraz, pisua galdu du diru sarreretan: %6,6 izatetik, 5,8ra pasa da.

Hurrengo partida, Parte hartze instituzionalekoa da. Honetan badago zer esaterik.

- %45a baino gehiago jaitsi da, eta kobratutakoa 2miloi 160mila euro izan dira. 2005ean hartu genuen lehenengo erabakia Hobetuzekin, eta hortik aurrera jarraitu dugu bidea CRLn, CESen, Osalanen eta Lanbiden: ez dugu parte hartzen joko arauak bermatzen ez diren eremuetan; ez dugu onartzen autogobernuari uko egitea eta estatutik datozen politika antzuak ezartzea; eta hirugarrenik, ez dugu onartzen finantziazioaren truke gobernuen politikei babesa ematea eta konplizeak bilakatzea.

- Bestalde, kontuan hartzekoa da hemen ikusten den bilakaera, hala izan dela 4 urte huetan zehar, eta baita 2012. urtean ere. Honen ondorioz, hemen ikusten dugu partida honen pisua 4 urteak hartuta, 2,4 puntukoa dela, aurrekoa epean, 5,2ko zelarik. Ba 2012. urtekoa ez da 0,5era iristen, 90.000 eurokoa izanik.

Honekin azpimarratu nahi dut nola gure hausnarketa eginda, gure egoera finantzeroaren sendotasunak eta horretarako hartzen ditugun neurriek posible egiten duten ondorio ekonomiko handiak dituzten erabaki politikoak azkeneraino eramatea.

Bukatzeko, negozioazio kolektiboko partida daukagu, sektore publikoarena, non pisu erlatiboa mantentzen den, eta diru-sarreraren %1a suposatzen duen.

Beraz, guztira, diru sarrerak 90miloi 900mila eurokoak izan dira, aurreko epea baino %20 gehiago.

BANAKETA

Diru sarrera horien banaketari dagokionez,

- zera ikusten dugu:

% 15,11a Erresistentzia kutxara doa, greba indemnizazioei aurre egiteko. Beraz, 13miloi 700mila euro eta aurreko epeko portzentajea.

% 84,89 Konfederazioko gastuak eta horniduretara doa, 77miloi. 2 kontzeptu hauen pisua ere berean mantentzen da.

Garrantzitsua da azpimarratzea, bai konfederazio mailan eta erresistentzia kutxaren kasuan ere, ikusten ditugun kopuru hauek direla, bai erresistentzia kutxara sartzen den diru bakarra, eta baita aurrekontu konfederala doan kopuru osoa eta bakarra. Zentzu honetan, azpimarratu nahi dut ELAk ez duela mailegurik, ez duela inongo zorpetzerik.

Eta hau ez litzateke posible militantziak eta afiliazio guztiak egiten duen ahaleginik gabe. Krisian gaudelarik, langileok gehien sufritzen gaudelarik langabezi eta soldata jaitsierak medio, sindikalgintza errebindikatiboa egiteak eta hori proiektu erabat autonomo baten eskutik, baita ekonomi arloan ere, asko eskatzen du. Besteak beste, afiliatu bakoitzak hilerok ordaintzen dugun kuota.

KOTIZAZIOA

Kuota motak

ZER PASA DA BAKURE KUOTAREKIN?

ELAK 3 kuota mota ditu eta koadro honetan ikusten dugu izan duten bilakaera berdina. Kasu honetan, 2008 eta 2012ko kuoten diferentzia ikusten dugu. %16,65 igo da, KPI baino %8,75 gehiago.

Horretaz ari nintzen afiliatuen ahalegina aipatzen nuenean. Gogorra egiten da kuotaren igoera, batez ere langabeziara joaten direnentzat.

Baina, paradoxikoa ala logikoa da?

Paradoxikoa izan daiteke egoera zailena dugunean kuota igoera hau.

Baina era berean logikoa:

Afiliazioaren bilakaera negatiboa bada ere; koherentziak beste diru sarrera batzuk galtzea eramaten bagaitu ere;

langileak defendatuko dituen sindikalgintza garatu nahi dugu; sektore eta enpresetan borrokak mantendu eta bultzatu nahi ditugu; langileon bizi baldintzen alde mobilizazioa antolatu nahi dugu... hori da ELAko proiektuaren xedea eta hori da kuota bakoitzaren atzean dagoen aportazio solidarioa.

Kobroa

Horrekin lotuta, beste elementua: kobrantzarena.

ZERGATIK EDO ZERTAN LOTUTA?

Ba ELArentzat afiliazioa oinarria dela badiogu; autonomiaren garrantzia azpimarratzen badugu; elkartasun proiektuez mintzatzen bagara...

Pertsona afiliatua eta kotizantea gauza bera direla esan behar dugu. Dakizuen bezala, afiliatu zordunak kudeatzeko prozedura dugu, eta afiliatu batek 6 kuota zor izatera iristen bada, baja da.

Horrek esplikatzeko du daukagun kobrantza portzentaje hain altua: gure afiliatuen %98a eguneratuta dauka kuotaren ordainketa.

Aipatu behar da dena den, orain dela 4 urte -2008ko datua- 6 dezima gehiago zirela, eta horretan krisiak ere baduela bere eragina.

Azken puntua, **Erresistentzia kutxarena da da.**

Lau urte hauetan ere, erresistentzia kutxak paper garrantzitsua jokatu du. Esan ohi dugun bezala, greba batean ez da garrantzitsuena, baina bere biziko garrantzia du eta tresna solidario hori gabe greba batzuk ez lirateke posible izango.

ELAren indarra neurtzen badugu, pisu oso handia du erresistentzia kutxak:

2009, 10, 11 eta 12. urteak hartuta, 480 gatazka, greba deialdi atzean egon da!

Bizi ditugun garai hauetan, non patronalak ez duen mugarik; non legeek ez gaituzten babesten eta non botere politikoa hain urrun dagoen, langileon borrokarako tresnak garatzea nahitaezkoa da sindikatu batentzat. Langileak benetan defendatzeko tresnak.

Horretarako, 4 urte hauetan, KPI baino zer edo zer gehiago igo dira ordainak. 2008 eta 2012 arteko igoera %8,4koa izan da.

Beraz, 2012an,

- Ohiko ordaina 800 euro hileko dira
- %15arekin osatutako ordaina 920 eurokoa
- Ez ohiko ordaina, 1600 eurokoa

Azpimarratzekoa da Gutxiengo Soldatarekiko portzentajea: %107, %123 eta %217a suposatzen dute.

Hauxe izan da eranskinaren aurkezpena.

Datu asko bai... ELAri buruz asko diotena.

- Gure proiektuaren muina azaleratzen dutena: langileak.
- Gero proiektua garatzeko azaleratzen duten gakoa: langileak.

Horregatik diogu: Lankidetu! Gizartea eraldatzeko Lankidetu!